

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AMURRIOKO UDALA

**Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiaren laburpena. Ebazpen horren bidez, 2023an euskara ikasteko beken deialdia egiten da**

BDNS (Identif.): 711037.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/711037>).

#### **Lehenengoa. Onuradunak**

2022-2023 ikasturtean Amurrion erroldatutako pertsonak, hamasei urte beteak dituztenak, eta Amurrioko Udaleko langileak.

#### **Bigarrena. Helburua**

Deialdi honen helburua da arautzea Amurrioko herritarrek euskara ikatea sustatzeko norgehiagoka bidezko dirulaguntzak.

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

Behin betiko onetsi dira, dirulaguntzak arautzen dituzten gainerako oinarriekin batera. 2023ko otsailaren 24ko ALHAOn argitaratutako dirulaguntzen arauaren 31. oinarria.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Deialdi hau 22.721,00 euroekin dago hornituta.

#### **Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea**

2023ko urriaren 1etik 31ra.

Amurrio, 2023ko abuztuaren 2a

*Alkatea*

*JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA*